

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

26. zenbakia

Data 2009-02-10

4426 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

ERRENTERIAKO UDALA

Ohoreak eman eta goraipamenak egiteko ordenantzaren behin betiko onarpena.

ERRENTERIAKO UDALA

Iragarkia

BEHINBETIKO ONARPENA

ERRENTERIAKO UDALAK OHOREAK ETA GORAIPAMENAK EMATEKO ORDENANTZA

LEHENENGO KAPITULUA

ERRENTERIAKO UDALAK OHOREAK EMATEKO

1. artikulua.

1.1. Errenteriako Udalak herrian eginiko merezimendu bereziak edo aparteko zerbitzuak saritzearren eman ditza-keen ohoreak ondoko hauexek izango dira:

1.— Errenteriako seme/alaba kutuna.

2.— Errenteriako ohorezko seme/alaba.

1.2. Goiko paragrafoetan aipatu goraipamenak soilik ohorezkoak dira, hots, horregatik ez dira egingo inolako eskubide ekonomiko edo administratiboren jabe.

2. artikulua.

2.1. Goian aitatu goraipamen eta ohore bakar bat ere ez zaie emango Administrazioan goi karguak dituztenei. Hau da, Udaltzatzearekiko beroriek hierarkikoki menpekotasun, funtzio edo zerbitzu-loturaren bat izango balute, beti ere arrazoi horiek irauten duten bitartean.

2.2. Edonola ere, ohore-goraipamenak eman ahal izateko alde zurretik araudi honetan ezarritako arauak bete beharko dira.

BIGARREN KAPITULUA

SEME/ALABA KUTUN ETA OHOREZKO

SEME/ALABA IZENDATZEKO

3. artikulua.

3.1. Errenteriako ohorezko seme/alaba titulua soilik eman ahal izango zaio herrian jaio eta aparteko bertutez edo merezimendu pertsonal edo Errenteriako herriaren aldeko zerbitzu bereziak eginez asko nabarmendu denari.

3.2. Era berean, Errenteriako ohorezko seme/alaba titulua eman ahal izango zaio herrian jaio ez direnei ere, baldin eta, horiek aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzen badute.

3.3. Halaber, herriko seme/alaba kutun zein ohorezko seme/alaba titulua hil ostean ere eman ahal izango da, baldin

eta, zenduak goian aitaturiko merezimenduak betetzen baditu.

4. artikulua.

Seme/alaba kutun eta ohorezko seme/alaba tituluak, biak maila berekoak, Udalak eman ditzakeen goraiipamen handienak dira. Horregatik, emateko garaian oso irizpen murriztaileak hartuko ditu kontuan.

5. artikulua.

5.1. Seme/alaba kutun eta ohorezko seme/alaba tituluak Udaltzak erabakiko ditu udaltzarkideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, beti ere, aldez aurretik Alkateak espedientea ireki eta proposamena egin ondoren. Gainera, bertan ohoreak emateko merezimenduak egiaztatu beharko dira.

5.2. Aurreko edozein titulu ematea erabakitakoan, Alkateak jarriko du eguna Udaltza elkartu eta goraiipamen diploma eta domina ekitaldi nagusian saridunari emateko.

6. artikulua.

Errenteriako seme/alaba kutun edo ohorezko seme/alaba tituluak ematen zaizkien lagunek eskubidea izango dute Udaltzak egingo dituen egintza eta ekitaldietan parte hartzeko, beti ere, horretarako adierazitako lekuan joango direlarik. Hori dela eta, Alkateak sarituei jakinarazpen ofiziala bidaliko die. Eta bertan, parte hartzeko gonbitea egiteaz gain, ekitaldiaren eguna, lekua eta ordua adieraziko die.

HIRUGARREN KAPITULUA

OHOREAK EMATEKO PROZEDURA

7. artikulua.

7.1. Araudi honetan aitutzen diren edozein ohore-mota emateko, aldez aurretik espedientea bideratu beharko da, hain zuzen berori emateko merezimendu edo inguruabarrak erabakitzeko balioko duena.

7.2. Hasiera Alkateak emango dio dekretu bidez. Horrela, Alkateak ekimen propioz jardun ahal izango du, baita Udaltzaren herenak eskatuta ere, edo, Herrian izen handia eta sustraiak dituzten elkarteek eskatuz gero.

7.3. Alkatearen dekretuan, halaber, espedientea eramateko izapidetzailerik bat izendatuko da espedientea izapidetzeko.

8. artikulua.

8.1. Izapidegileak egin beharrekoak egingo ditu proposaturiko pertsonaren merezimenduak jakiteko xedez. Horretarako txostenak eskatu eta datuak eman ditzaketen lagun ororen informazioa jasoko du, hain zuzen aipatu merezimenduak argitu ahal izateko.

8.2. Behin akordaturako eginbide guztiak amaitutakoan, bideratzaileak bere irizpena aurkeztuko dio Alkateari, eta honek, hala baderitzo, eginbideak gehitzea erabaki. Ondoren, bideratzaileak arrazoituriko proposamena egingo du Kultura informazio-batzordera eramateko.

8.3. Kultura informazio-batzordeak proposamena errefusatu edo onar dezake. Onartuko balu, proposamena osoko bilkurara eramango litzateke, hain zuzen, honek, Araudiak dionaren arabera, bidezkoa deritzon erabakia hartzeko.

9. artikulua.

9.1. Udaltzak edozein titulu emateko akordioaren laburpen bat jasoko da Udaltzaren Idazkaritzaren esku

dagoen erregistro-liburuan. Erregistro-liburu horrek bi zati edukiko ditu. Hau da, Araudi honetan araututako ohore-sari mota bakoitzarentzako bat.

9.2. Liburuaren atal bakoitzean, kronologikoki ordenatuta, goraipatutako lagunen izenak eta egoera pertsonalak inskribatuko dira, baita ere egindako merezimenduak, eguna, eta, hala balegokio, heriotza-eguna.

9.3. Udalak Araudi honetan aitutzen diren edozein goraipamen kendu ahal izango du –erregistro-liburuan izendapena ezabatuz- baldin eta ohoredunek neurri zorrotz hori hartzeko adinako arau-haustea egin badute, eta, nahiz eta, edozein izan haiek emandako eguna.

Udalbatzak erabaki hori hartu ahal izateko alde zuzenetik proposamena eta Alkatetzaren txostena izan beharko du, eta goraipamena egiteko beharrezkoa izan zen boto-kopuru bera beharko da kentzeko.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman biharamunean.

Errenteria, 2009ko otsailaren 3a.—Joaquín Acosta Pacheco, Lehen Alkateordea.

(663) (1339)